

M.A.R.E.A. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa M.A.R.E.A.k ondo funtziona dezan, ezinbestekoa da jarduera garrantzitsu batzuk burutzea. Hauek dira nagusienak:



HORNITZAILEEI EROSKETA ETA KUDEAKETA

M.A.R.E.A.k robot garbitzaileen hornitzaile enprekin lankidetzak hitzarmenak ditu. Horrez gain, enpresak eredurik onenak hautatzen ditu, prezioak negoziatzen ditu, kalitatea kontrolatzen du eta robotek ingurumen-araudiak eta estandarrak betetzen dituztela ziurtatzen du.

SALMENTA ETA MERKATURATZEA

Bezzeroaren arabera egokitutako eskaintzen bidez, M.A.R.E.A.k bere produktua eskaintzen die kostaldeko udalei, elkarteei eta ingurumen-erakundeei.

Horretarako, aurkezpenak egitea, aurrekontuak prestatzea eta bezzeroekin harreman zuzena mantentzea garrantzitsua da, eskaintzen dugun produktuaren jarraipena eta mantentze egokia bermatzeko.

INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA

M.A.R.E.A.ren lanaren funtsezko ataletako bat da robotak hondartzetan instalatzea eta mantentze prebentibo zein zuzentzaileak egitea.

Ekintza hauek bermatzen dute robotek segurtasunez, etengabe eta modu eraginkorrean funtzionatzen dutela, hondartzetako mikroplastikoak etengabe eta era eraginkorrean garbituz.

BEZEROAREN ARRETA ETA PRESTAKUNTZA

M.A.R.E.A.k aholkularitza tekniko eta oinarrizko prestakuntza eskaintzen die udaletako edo erakundeetako arduradunei, robotak behar bezala erabiltzen jakin dezaten.

Horrez gain, laguntza eta arreta-zerbitzu bat du, edozein arazo edo gorabehera konpontzeko.

KOMUNIKAZIOA ETA INGURUMEN-SENTSIBILIZAZIOA

Enpresak kanpaina informatibo eta sensibilizatzaileak garatzen ditu, hondartzak garbi mantentzearen onurak eta robot jasangarrien erabileraren eragin positiboa zabaltzeko.

Gainera, sare sozialak eta webgunea kudeatzen ditu, garbiketen emaitzak eta bildutako datuak erakutsiz.

TXOSTEN ETA ANALISIEN PRESTAKETA

M.A.R.E.A.k roboten datuak biltzen eta aztertzen ditu (adibidez, bildutako mikroplastiko kopurua edo kutsadura handiena duten guneak), eta ingurumen-txostenak prestatzen ditu udalek erabaki jasangarriak har ditzaten laguntzeko.



HONDAKINEN BILKETA ETA BERRERABILERA

Robotek bildutako mikroplastikoak eta bestelako hondakinak sailkatu egiten dira eta birziklapenean espezializatutako enpresetara bidaltzen dira, produktu jasangarri berriak ekoizteko.

Horrela, M.A.R.E.A.k ekonomia zirkularraren eredua sustatzen du, hondakinak baliabide bihurtuz.



KANPORA UTZ DAITEZKEEN JARDUERAK

Beste enpresa batzuek egiten dituzten jarduera hauek lagungarriak dira, denbora eta baliabideak aurrezteko, eta horrela M.A.R.E.A.k bere jarduera nagusietan arreta handiagoa jar dezake.

- Roboten fabrikazioa, teknologia-enpresa espezializatuek egiten dutena.
- Garraioa eta logistika, bezeroei zuzeneko entrega egiteko.
- Mikroplastikoen birziklapena, hondakinak eraldatzeko enpresa kolaboratzaileek kudeatzen dutena.

